

## **TECNALIAk VELTIS *startupean* inbertitu du, higiezinaren arriskuen analisisian adimen artifiziala eta klima-aldaketa aldagai gisa kontuan hartzea sustatzeko.**

- Espainiako teknologia-zentro handiena VELTISen akziodunen taldean sartu da, zeina higiezinaren *rating*eko Europako lehen agentzia baita, DeepTech4Impact azelerazio-programaren bidez.
- Horrela, TECNALIAk adimen artifizialean, *smart datan* eta klima-aldaketari lotutako arriskuetan duen gaitasun teknologikoaren ekarpenarekin, bultzada teknologiko bat jasoko du VELTISek, eta horrek aldea ekarriko du lehiari dagokionez.

**2024ko otsailaren 15a.** TECNALIA ikerketa eta garapen teknologikoko zentroak VELTISen inbertitu du, zeina higiezinaren *rating*ean espezializatutako Europako lehen entitatea baita, adimen artifiziala, *smart data* eta adimen klimatikoa erabiltzea sustatzen duena higiezinaren sektoreko arriskuen analisisian. Horretarako, Espainiako zentro teknologikorik handiena konpainiaren akziodunen taldean sartu da, hark TECNALIAren DeepTech4Impact azelerazio-programan parte hartu ondoren (programa TECNALIA Venturessen kudeatzen du, TECNALIAren *Deep Tech Venture Builderrak*, eta *startup*ak teknologikoki bultzatzen jarduten du).

VELTIS Rating 2014an sortu zen, informazio fidagarriarekin arriskuen analisia errazten duen tresna bat sortzeko eta, arriskuetatik abiatuta, higiezinaren lehen *ratinga* (finantza-*rating*aren antzekoa) ezartzeko, eta higiezinaren hizkera finantza-hizkera bihurtzeko lehen aldiz. Horrekin, lortzen da gardentasuna ematea krisi-garaietan eragileei galera handienak eragiten dizkieten sektore opakuenetako bati. Horrela sortu zuten TERMINAL VELTIS® izeneko tresna teknologikoa, zeinak, *Smart Data* eta ikaste automatikoa erabiliz, kalitatezko informazioa ematen baitu aktiboari, zorroari eta lurraldeari eragiten dieten arriskuei eta higiezinaren *ratingari* buruz.

TECNALIAko Klima Aldaketara Egokitzearen arduradun Efrén Feliuren arabera, “VELTISek finantza- eta higiezin-sektorean gero eta handiagoa den behar bati erantzuten dioten produktu eta eskaintza garrantzitsu bat ditu; horregatik, TECNALIArekiko aliantza estrategikoaren helburua bikoitza da: alde batetik, klima-aldaketari lotutako arriskuak kuantifikatzeko aukera ematen duen adimen klimatikoa ematea, eta, bestetik, higiezinaren *ratinga* zehazten duten algoritmoak garatzen jarraitzea, maila teknologikoan hobetzeko eta indartzeko, eta hala produktua sendoagoa eta nazioartean lehiakorragoa egiteko”.

Horretaz gain, TECNALIAren partaidetzapeko enpresen zorroarekiko konexioaren eta bezeroekin eta finantza-erakundeekin duen harreman-sarearen onurak izango ditu VELTISek.

VELTISeko CEO Ricardo Antuñaren ustez, “2023an irekitako Seed saileko inbertsio-txanda oso arrakastatsua izan da gure konpainiarentzat. Izan ere, inbertitzaileek interes handia erakutsi dute proiektuan, eta bi industria-bazkide (TECNITASA TALDEA eta LAR TALDEA) eta bazkide teknologiko bat (TECNALIA) sartzea lortu dugu; nazioarteko erreferentziako enpresak dira, eta, kapitala ez ezik, espezializazio eta ezagutza handia ere ekarriko dute negozio hau gara eta haz dadin. Guztion helburua da VELTIS higiezin *rating*eko Europako lehen agentzia gisa posizionatzea —“higiezin sektoreko *Moody’s-a*”—, eta A saileko txanda bat planteatu da 2024rako proiektua nazioartean eskalatzeko helburuarekin.

DeepTech4Impact izeneko programa, TECNALIA Venturessen kudeatua, *deeptech* *startup*ei zuzendua dago, hau da, teknologia sofistikatuetan oinarritzen direnei, eta ekintzaileei eskaintzen dien garapen teknologikorako gaitasuna du ezaugarri nagusia. Hala, ibilbide luzeko bazkideen eta *startup*en arteko harremana estutzea proposatzen du, arriskuak eta onurak partekatuz, eta berariaz garatuz konpainia berriaren negozio-planaren beharretara egokituko den programa individualizatu bat. Ekintzaileek TECNALIAren gaitasun teknologiko guztia izango dute eskura, nola adituak hala aktibo teknologikoen jabetza industrial, laborategiak eta azpiegitura bereziak.

Horrela, VELTIS TECNALIAren partaidetzapeko *deep tech* *startup*en zorroan sartu da, zeinak % 95 handitu baitu bere balioa azken 3 urteetan.

Azeleragailuari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero:  
<https://www.tecnalia.com/acceleradora-startup-deeptech-potencial-tecnologico-tecnalia>

## TECNALIAri buruz

TECNALIA Espainiako ikerketa aplikatuko eta garapen teknologikoko zentro handiena da, Europako erreferentzia eta Basque Research and Technology Alliance-ko kide. Enpresa eta erakundeekin elkarlanean aritzen da, lehiakortasuna eta pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko eta hazkunde jasangarria lortzeko. Horretarako, 1.500 lagunetik gorako lantalde bat dauka, ikerketa teknologikoaren eta berrikuntzaren bidez mundu hobea eraikitzeko konpromisoa hartu duena. Horregatik, TECNALIAren ikerketak benetako eragina du gizartean, eta onurak sortzen ditu bizi-kalitatean eta aurrerabidean. Hauek ditu jarduera-eremu nagusiak: fabrikazio adimenduna, eraldaketa digitala, trantsizio energetikoa, mugikortasun jasangarria, osasuna eta elikadura, hiri-ekosistema eta ekonomia zirkularra.

European Research Survey ERSk ospeari eta posizionamenduari buruz egindako azken azterketan (2022an egina da), TECNALIA lehen postuan ageri da I+G+Ban markak duen ospeari dagokionez.

TECNALIA Ventures deep tech venture builderraren bidez, zentroak balioa ematen dio I+G+Ban egindako inbertsioari, teknologia sofistikatueta (*deep tech*) oinarritutako negozio-aukerak identifikatzen eta kudeatzen baititu. Horretarako, *venture building* prozesu bat hedatzen du, eta, haren bidez, edozein berrikuntza-ekosistemaren funtsezko hiru zutabeak lotzen ditu: teknologian oinarritutako ideiak sortzen dituzten pertsonak (*minds*), ideia teknologikoak negozio-aukera bihurtzeko gai diren kudeatzaileak (*management*) eta teknologia sofistikatueta ekimen ekintzaileen alde egiten duten inbertsiogileak (*money*).

[www.tecnalia.com](http://www.tecnalia.com)

### **VELTIS RATINGi buruz**

VELTIS RATING enpresaren (*PropTech* eta *FinTech* sektoreei lotutako *DeepTech*) garapena kualifikazio handiko profesionalak gidatutako teknologia-berrikuntzan oinarritu da, eta sektoreko enpresa sarituenetako eta aitortuenetako bat da. Etorkizunaren aldeko apustua egiten dugu *real estate*ari aplikatutako *SMART DATA* eta *IKASTE AUTOMATIKOA* erabiliz, Espainiako ekonomiaren funtsezko sektoreetako batean erabakiak hartzea errazteko informazio fidagarria emateko. Inbertsio bat konfiantzaz egin ahal izateko behar den informazio guztia ematen duen lehen tresna teknologikoa (SaaS) garatu dugu: finantza-merkatuen jardunbide onenak higiezinaren sektorerara estrapolatu ditugu, eta, hala, finantza-hizkera bihurtu dugu higiezinaren hizkera lehen aldiz.

Higiezinaren, finantzen eta datuen sektorearekin lotutako nazioarteko enpresa handietako zuzendari-talde batek sortu zuen VELITIS, zeinek 50.000 milioi eurotik gorako balioa duten aktiboen zorroak kudeatzen baitituzte eta banku-erakunde handietako arrisku-ereduen arduradunak baitira.

Sektoreko lehen SaaS profesional espezializatua dugu (TERMINAL VELITIS®), zeinak lehen aldiz aukera ematen baitu bonu, akzio edo higiezineta inbertsioak konparatzeko.

[www.veltisrating.com](http://www.veltisrating.com)

### **Informazio gehiago:**

Itziar Blanco (681 273 464)